

Ekonomi krisia eta langabezia ez dira 1995. urtera arte gaindituko

Aurten 0,3ko hazkunde negatiboa izango dela uste dute Europako Ekonomia ministroek

Europako ekonomiaren beheraldia ez da 1995. urtera arte gaindituko, urte horretan ekonomi hazkundera nahikoa izango baita lanpostuak sorrarazteko, Europako Komunitateko hamabi lurraldeetako Ekonomia eta Hazienda ministroek adierazi dutenez. Aurten % 0,3ko hazkunde negatiboa izango da haien ustez.


LUXENBURG

Europako Komunitateko ekonomi hazkundera negatiboa izan zen iazko bigarren sei hilabete-koan eta joera horri aurten ere eutsiko zaiola adierazi zuen atzo Luxenburgaren Henning Christophersen Finantza komisari danimarkarrak.

Europako Batzordeak behetik berraztertu du 1993ko hazkunde aurrikuspena —% 0,8—, ekonomi adierazle negatiboak ikusita, eta Komunitateko Barne Produktu Gordinak aurten % 0,3 galduko duela deritzo Christophersenek.

Horren aurrean, Europako Komunitateko estatuburuak ekonomiaren egoeraz jardungo dute datorren ekainaren 21 eta 22an Kopenhagen izango den bilera gailurrean. Bertan, Jacques Delors Batzordeko lehendakariak txosten bat aurkeztuko du, ekonomi atzerapenaren aurkako neurri eraginkorrak proposatzeko.

Hamabi ministroak atzo kezkatu azaldu ziren langabeziaren arazoaz batez ere. Gaur egun, 17 milioi europar daude langabezian, biztanleria aktiboaren % 10,4 hain zuzen. Tasa hau % 11ra irits liteke datorren urtean, hau da, Europako Komunitatean inoiz izan den langabe ko-



Europako Komunitateak 1995era arte ezingo du langabeziaren arazoa konpondu.

pururik handienara.

Europako lurraldeek joera hori aldatzeko helburua finkatu dute 1994erako. Urte horretarako ekonomiaren joeraren aldaketa txikiak izatea espero da % 1 eta % 2 bitarteko hazkunderarekin, nahiz eta datorren urteko hazkunde hori lanpostuak galtzeko joerari buelta emateko nahikoa ez izan.

Estatu espainiarreko egoerari buruz, Pedro Perez Ekonomia idazkariak aurrikusi zuen krisiak urtearen bigarren erdialdean behea joko duela eta urte bukaerarako hazkunde positiboa izango dela, hazkunde hau zenbatekoa izango den esan ez bazuen ere.

Ekonomia ministroek azpimarratu zuten, estatudefizit publikoaren hazkundera kontrolatu beharra daukate, gastu arrun-

tak murriztuz eta inbertsioetarako gastuak gehituz. Diru politikaren inguruan, inflazioa kontrolatu eta interes tasak jaitsiz joan behar dutela diote ministroek.

Helburu horiek lortzeko, zenbait egitura aldaketa beharrezkoak direla aipatu zuten, batez ere lan merkatua 'malgutzea'.

EKONOMI HAZKUNDERAKO EKIMENA

Komunitateko Ekonomia ministroek 'Ekonomi Hazkunderako Ekimena' (EHE) deritzon proiektua aztertu zuten atzo. Ekimen honen arabera, Europako Batzordeak eta beronen finantza tresna den Europako Inbertsioetarako Bankuak (EIB) 5.000 milioi ecuko (750.000 milioi pezeta, 34.000 milioi libera) mai-

leguak zuzenduko dituzte garraio eta komunikazio azpiegiturara eta enpresa txikientzat.

EHEren barruan Europako Inbertsioetarako Fondoak (EIF) eratzea ere aurrikusita dago. Fondo honek 2.000 milioi ecuko (300.000 milioi pezeta, 13.500 milioi libera) kapitala izango du, EIBk jarrita. Europako beste zenbait finantza entitate pribatuk eta Batzordeak berak 5.000 eta 10.000 ecu bitarteko maileguak emango dituzte, 20.000 milioi ecu (hiru bilioi pezeta) arteko proiektuak finantzatzeko.

Baina Inbertsioetarako Fondoak osatu ahal izateko, gobernuek Bankuaren estatutuak aldatu egin beharko dituzte urtea bukatu baino lehen. Horretarako eskaria egin zuten atzo EIBko Administrazio Kontseiluak ministroei.

Pezetak gora egin du hauteskunde ondoan

MADRIL

Pezetaren balioa handitu egin zen atzo, Espainiako hauteskundeak pasatu ondoren. Horrela, trukea marko bakoitzeko 76,80 pezetan kokatu zen. Interes tasek, berriz, joan den asteko mailari eutsi zioten.

PSOE alderdiak pezeta Europako Diru Sistemaren barruan mantenduko duelako eta interes tasak gutxinaka jaisten joango direlako ustea dago finantza merkatuetan. Efe berri agentziak, diru merkatuetako adituen iturriak aipatuz, atzo adierazi zue-

nez. Hau litzateke, iturri berberen arabera, marko bakoitzeko 1,44 pezetako irabaziaren arrazoi nagusia.

Diruaren merketze honek eragina izan dezake hilaren 15eko Espainiako Bankuaren zertifikatuen enkantean, baina ez da espero % 11,25eko tasa ofiziala puntu laurden baino gehiago jaisterik.

Adituen esanetan, pezetaren truke tasa egonkorra «babesten» jarraitu beharra dago, 79,10 pezeta/marko mailatik behera, alegia. Era berean, Alemaniako interes tasen jaitsieraren zain Es-

painiako diru agintarien «zuhertasuna» gomendatu dute. Iturri hauen ustez Espainian «Gobernua sendoa» behar da ekonomiaren doikuntza gaitasuna bultzatzeko.

INTERES TASAK BEHERA

Pedro Perez Ekonomia Estatu idazkariak atzo Luxenburgaren adierazi zuenez, «orain Europako Komunitateko interes tasen beherantzko joera aprobe-txa dezake Espainiak ere».

Estatu idazkariaren iritziz, azken boladan pezetak jasan dituen tentsioak ez dira bereziki ekonomi politikaren ondorio

izan, baizik hauteskundeen deialdiak sortutako zalantza egoerak eragin ditu, Perezen esanetan. Sozialisten garaipenak ekonomi politikaren jarraipena dakar eta horregatik merkatuek pezetarenganako konfidantza berreskuratu dutela deritzo Ekonomia idazkariak.

Azken hilabeteotan pezetak izan duen hirugarren debaluzioaren ondoren markoarekiko truke tasa batez besteko 79,10 pezeta/markotan kokatu da. Europako Diru Sistemak kopuru honen inguruan % 6ko gora-behera baimentzen dio pezetari.

JEZ zerga aldatzea nahi du Adegik

DONOSTIA

Jarduera Ekonomikoa-ren gainera Zerga (JEZ) aldatzea eskatu du Adegik, Gipuzkoako enpresarien elkarteak, «enpresa txiki eta ertainak kaltetzen dituelako eta atzerakada ekonomikoa larriagotzen duelako».

Adegiko teknikariek sektore ezberdinetako 273 enpresatan egindako ikerketaren datuek erakutsi dute zerga honekin % 91,4 handitu dela Gipuzkoako enpresek pairatzen duten presio fiskala.

Lizentzia fiskalaren eta kokapen zergaren ordeztu urtarilaren batean sartu zen indarrean JEZ, eta lehengo bi zergek 1991n bildutako dirua bikoiztu duela ziurtatu dute Gipuzkoako patronaleko iturriek.

Eraikuntza sektorean presio fiskala % 309 handitu da JEZekin, elikagai eta edari industrian hazkundera % 242koa izan da eta makinaria eta ekipaia mekanikoen eraikuntza alorrean, berriz, % 168koa.

Mutrikun eta Bermeon industrialdeak eratu dira

DONOSTIA

Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua (ISEB edo SPRI) izeneko elkarte publikoak Mutrikuko Industrialdea eta Bermeo-Mundakako Industri-Lur elkarteak eratzea erabaki du.

Mutrikuko Industrialdeak 18.057 metro koadroko azalera izango du, horietatik 11.442 industri pabilioietarako, bertan enpresak kokatu ahal izateko. Beste 5.787 metro koadro eraikitzeko lurrez osatuta dago eta gainontzeko 828 bulegoetarako izango dira. Proiektu honetan 822 milioi pezeta inbertitu dituzte ISEBk, Gipuzkoako Diputazioak eta Mutrikuko Udalak.

Mundaka-Bermeoko Industri-Lur sozietateari dagokionez, haren kapitalean bi herrietako udalek, Bizkaiko Diputazioak eta industri erakunde publikoak hartuko dute parte, 513 milioi pezeta inbertituz. Elkarte honek 33.510 metro koadroko industri lurra gestionatuko du, enpresak kokatu ahal izateko.